

# AUTO-TAXIEN UDAL ORDENANTZA, ORDIZIAKO IBILGAILU ARINETAN GARRAIOEN HIRI-ZERBITZUEN "A" MOTA.

## ANTZINSOLASA

Ibilgailu arinetan garraioen Hiri-Zerbitzuen Araudi Zazionala onartzen den martxoaren 16ko 763/1979 Errege Dekretua 10.134 - Barne Ministeritzaren Errege Dekretua, 1979ko apirilaren 13ko Estaduko Boletin Ofizialaren 89. alean argitaratu zenak, Udalek zerbitzu Publiko honen Araudi edo Ordenantza Arautzaileak har ditzaketela ezartzen du.

Udal honetako dagokion Batzordeak aztertu ondoren eta sektoreko gahiengo elkarte, sindikatu, ermandatearen nahiak bideratze asmoz. Ordiziako udal Gorenak, arau hauek bete zituen eta zerbitzuaren Ordenantza arautzailea onartu zuen.

## I. ORDENANTZAREN HELBURU ETA ERDIESPENA

### 1. Artikulua.

Ordenantza hau, honi buruz ari da:

a) Ordiziako hiri-gunetik kanpo edo barruan eskainitako zerbitzuak, akurazko ibilgailu arinak, gidariak eta taximetroak. Udalak onartutako tarifen aplikazio bidez, hiri-zerbitzuei dagokienez.

## II. IBILGAILUENA

**2.- Artikulua.-** Ibilgailuen jabeen borondatez, horietan irrati-aparailu bat jar daiteke, bidaiariaren baimen edo eskaeraz martxan jarri beharko dena.

**3.- Artikulua.-** Ordenantza honetara atxekitutako biligailuen barru edo kanpoan edozein motatako iragarkiak jartzea erabat debekatua geratzen da.

**4.- Artikulua.-** Zerbitzua egiteko automobil marka eta kolorea libreki aukeratuko dute ibilgailuen jabeek.

Edozein erataria ere, ez ditu bost plaza baino gutxiago edukiko, gidariarena barne. Ezta zazpi plaza baino gehiago, egoera berean.

**5.- Artikulua.-** Ordenantza honetan adierazitako zerbitzuei zuzendutako ibilgailuek, 8 zaldi fiskal baino gehiagoko indarra izan beharko dute.

**6.- Artikulua.-** Ezingo da 5 urte baino aintzinagokoa den ibilgailua Ordenantza honetan araututako zerbitzuetara zuzendu. Ordezkatu beharrekoaren toki eta kategoria izugarri hobetzen ez bada ezik.



**7.- Artikulua.-** Ordenantza honek arautzen dituzten zerbitzurako dauden ibilgailuetan, S.P. siglak jarri beharko dira, atzeko aldean eta aurreko aldean. Gainera, libre kartela eramango dute, eta hala daudenean, automobilaren haizetakoan jarri beharko dute.

**8.- Artikulua.-** Ibilgailuak kontserbaket-egoera ezin hobean egon beharko dira, aita kanpo eta barneko garbitasuna ere.

**9.- Artikulua.-** Industria Ordezkaritza Probintzialaren aurrean, arauzko errebisioez gain, Udalak edozein unetan bere aurrean aparteko errebisioak egitea agindu dezake.

**10.- Artikulua.-** Zerbitzu hauei zuzendutako ibilgailuen jabeek dagokion aseguru-poliza hitzartu beharko dute, indarrean dagoen legediak zehaztutako arriskuak beteko ditularik.

**11.- Artikulua.-** Ordenantza honetan arautzen diren ekintzen jardunerako baimenak dituztenak, horretara zuzendutako ibilgailua beste modernoago batez edo baldintza hobeak betez ordezkari dezakete edozein garaitan, ezarritako eskakizunak baditu behintzat eta Udalaren alde aurretiko baimenaz.

### III.- BIDARIENA

**12.- Artikulua.-** Zerbitzua eskaintzerakoan, gidariek agiri hauek eraman beharko dituzte:

a) Ibilgailuari dagozkionak:

- Baimena.
- Ibilgailuaren udal baimeneko zenbakiz eta bere eserlekuaren adierazpenez plaka.
- Ibilgailuaren zirkulazio-baimena.
- Indarrean dauden aseguru-polizak.
- Indarrean dauden inspektzio-txartelak.

b) Gidariei dagozkienak:

- Ibilgailua mota hauentzako zirkulazio-kodigoak eskatutako motako gidatzeko agiria.
- Gidatzeko udal baimen-agiria.

c) Zerbitzuari dagozkionak:

- Onartzen den eredu ofizialaren araberrako erreklamazio-liburua.
- Araudi Nazionalaraen alde batera, bere kasuan, zerbitzuaren herri Erakundearen ordenantzaarena.
- Sorosle-etxe, sanatorio, polizia-komisari, suhitzaila eta gainerako larrialdi-zerbitzuen helbide eta kokalekuak.
- Hiriko planu eta kale izenak.
- Itzaroteko orduengatik herri erakundeetako lurretatik irtenaldiengatik jasotako kopuruari dagokion herri erakundeak.

- Baimendutako taloitegi-errezibuak, horiek erabiltzaileek eskatu ditzakete eta aldiko errebisioetan egiaztatuak.
- Indarrean dagoen tarifaren ale ofiziala.

**13.- Artikulua.-** Ordenantza honetan dauden zerbitzuak eskaintzeko baimendutako ibilgailuen gidariek astean atsedenezkoa har dezakete.



**14.- Artikulua.-** Gidariei honako hau erabat debekatu egingo zaie: zerbitzu garain ibilgailuak uztea.

#### **IV.- ZERBITZUA ESKAINTZEKO ERA**

**15.- Artikulua.-** Ordenantza honen 1. artikuluko A sailean zenbatutako zerbitzua eskaintzeko udal baimena lortzeak, Korporazioak erabakitako zerbitzua pertsonalki eta dedikazio oso eta eskusiboz eskaintzeko obligazioa eramango du inplizituki, aldez aurretik taxi-ermandatearen proposamenaz eta korporazioaren bere inizatibaz. Ordu horiek ezin ditu utzi eta gutxienez honako baldintzak bete beharko dituen:

- 1.- Geltokian goizeko 7etatik 10,30ak arte beti zerbitzuko ibilgailu at egongo da.
- 2.- Gaueko 10,30etatik aurrera dagokion taxista sartuko da guardian.
- 3.- Udaltzaingoak eta Ertzaintzak guardian zein taxista dagoen jakingo du.
- 4.- Ezin izango diote ukorik egin gaueko zerbitzua egiteari, hau Udaltzaingoak edo Ertzaintzak berretsia bada.
- 5.- Gauean lana eginezin duen taxistak, beste lankide bati adieraziko dio berak.

Segidako arrazoio justifikatu hauengatik ez dira lanera etorri ahal izango:

- 1 - Gaixotasunagatik.
- 2 - Zerbitzuko laneko bidaian baldin badira.
- 3 - Ibilgailua konpontzen badute.
- 4 - Oporretan daudelako.
- 5 - Bere etxean betebeharren badute edo arazo pertsonalengatik.
- 6 - Gaez lana egin duelako.

Ordenantza honengatik baimendutako ibilgailuen jabeek udal baimena ordaintzeko obligazioa izango dute, baita bere ekintzak garatzen dituen Udalean ( honen menpe dago bere baimena ) bere ibilgailuarekin erlazionatutako beste zega batzuk ere.

**16.- Artikulua.-** Ibilgailuaren gidaria honako kasu hauetan akuratzera ezeztu daiteke:

- 1.- Edozein bidaiari gogorkariengatik mozkorra edo intosikazio-egoeran dagoenean, bere bizitza edo integritate fisikorako arrisku larrian edo presazko kasuetan ezik.
- 2.- Arauz eraman ditzakeen baino pertsona gehiagok akuratzten saiatzen badira.
- 3.- Gidarien hijiene-faltak hala gomendatzen duenean.
- 4.- Bidariak aurreko zerbitzuaren bat ordaindu gabe baldin badu eta irten baino lehen ordaintzen ez badu, baita eskatutako zerbitzuaren zebatekoa ere, nahiz eta zerikusirik ez duten pertsonaz lagunduta badago ere.
- 5.- Bidariak bere lekuetan abereak sartzen saiatzen badira.
- 6.- Bidaiarien, gidari edo ibilgailuarentzat arriskuzko bideetatik joateko eskatzen zaionean.
- 7.- Bere gauzen kopurua edo bulto gehiekeria, ibilgailuaren maleteroan sar ezin denean.

**17.- Artikulua.-** Bidariak akuraturako ibilgailua transitorioki uzte dutenean eta gidariak bere itzulera itxaron behar badute, garatia gisa, egindako ibilaldiaren zenbatekoa, gehi hiri-gunean orduerdi bat eta zelaian ordubeteko zenbatekoa eska diezaiekete, denbora hori iraginin, zerbitzuko loturak kendutzat joz.

Gaueko zerbitzuetan, zerbitzua eskaintzeko baimena duen ibilgailuaren gidariak aurrez egin beharreko zerbitzuaren zebatekoa eska dezake eta bestela bera egitera ezezkoa eman.



Zerbitzuaren jarraipena ezinzkoa egingo duen istripu edo aberia gertatzen bada, bidaiariak zerbitzuaren zenbatekoa, istripu edo aberia arte ordaindu beharko du, gidariak bidaiariari beste ibilgailuren bat lortzeko ahaleginak egin beharko dituelarik, bigarren taxia aberiatutako ibilgailuaren jabeak ordainduko du, aberia lekura iritsi arte.

**18.- Artikulua.-** Ordenantza honetan araututako hiri zerbitzuak eskaintzen dituzten ibilgailuek, Udalak une bakoitzean onartuak izango dituen tarifak aplikatuko dituzte, ordezkaturako batzordearen txostena, sindikatuena edo sektorearen Elkarte Profesional ordezkariena entzun ondoren.

**19.- Artikulua.-** Ibilgailu hauek eskainiko dituzten hiri arteko zerbitzuak, Garraio Ministeritzak, Eusko Jaurlaritzak edo Foru Aldundiak onartutako tarifei atxekituak egongo dira.

**20.- Artikulua.-** Tarifak urtero errebisatuko dira, Ordenantza honen 18. artikulua aurrikusitako txostenen arabera. Eta bere onarpen edo ezeztapenerako iragango den denbora, behin Udalean aurkeztuz gero 30 egun baino gehiago ez da pasatuko.

Ermendatearen emaitza edozein izanda ere, emaitza sortu eta zazpi eguneko gehienezko epea idatziz adieraziko dio gaia eramango duen Batzordeak.

Onartzeko aurkezten diren tarifak ezabatuak izango balira, batzorde hori ermandatearen ordezkariekin bilduko da, era horretan, adostasun batera iristekotan, eta baikorra gertatuko balitz, hurrengo bilkurara pasatuko litzateke, berehala onartzeko. Tramite gusti honek ez du, Udalean lehen aurkezpenetik 50 egun iraungo.

**21.- Artikulua.-** Bai arloko industrialentzat, nola zerbitzu publikoa erabiltzen dutenentzat eta baita gidarientzat ere, indarrean dagoen tarifara atxekitzea beharrezkoa da. Horren ondorioetarako, aplikazio-tarifek, salbuespenik gabe, taximetroan azaldutakoak izan beharko dira, publikoki geltokian(etan) begibistan egon beharko dutelarik eta baita ibilgailu bakoitzaren barruan, sartzen denak argi eta garbi ikus ditzan.

## VI - BAIMENAK

**22.- Artikulua.-** Ordenantza honek araututako ekintzen jarduna baimenduko duen udal baimena lortzeko, kontzesionariak herrian erroldatua egon beharko du, eskubidezko bizilaguna izan, erroldatua egon eta Ordizian gutxienez 2 urtez bizi izana.

Primiazko eskakizuna izango da baita, ez inongo enpresan, ez beste ekintzaren atetan bere kabuz lanik ez duela egiten kreditatzea, zeren bere lana oso ere eskusibo eta beste ekintza batekin batera egin ezin daitekeena bait da.

**23.- Artikulua.-**Korporazioak era objetibo eta publikoki aurkez daitezkeen auto-taxien baimen-eskaeran aukera egiteko konpromezua hartzen du.

**24.- Artikulua.-** Baimenak, ondoko agiriekin batera aurkeztutako eskera batez eskatuko dira:

a) Ordiziako udalaren auzokidetasun ziurtagiria, bertan eskubidezko bizilagun dela eta gutxienez 2 urte bizi den daramatzala zehaztu beharko da.



- b) “C” motako gidatzeko agiria edo goragokoa.
- c) Gaisotasun kutsatzailerik ez duela eta zerbitzurako balio duela adieraziz sendagiliaren ziurtagiria.
- d) Eskatzailearen euskara ezagupena kreditatuko duen udaleko euskara-zerbitzuaren ziurtagiria. Behin baimena eman eta hiru hilabete igaro ondoren, Udalarik segidako agiriak aurkeztu beharko dizkio: trafiko-ziurtagiria, bertan, bere ibilgailuaren aseguru-poliza ere eta Gizarte Segurantzaren eta autonomoetan alta emana dagoelaren frogagiriak.
- Baimen emaitzak, biztanleengatikoa baimen kopurua dela eta, Eusko Jaurlaritzak ezarritako moduloaren aplikazioaren emaitzara baldintzatua geratuko da.

**25.- Artikulua.-** Lizentziaren eskaria jasorik, Udalak eskatu beharko ditu, legezko eran, sektorearen ordezkari diren Elkarte Profesionala edo Sindikatuen bidezko txostenak.

Lizentzien emakida, biztanleko lizentzi kopuruaz Eusko Jaurlaritzak xedatutako moduluaren aplikazioaren emaitzari baldintzatuta dago.

## VII - LIZENTZIEN EMAKIDA

**26.- Artikulua.-** Baimenak aldatu ezin izango dira, segidako kasuetan ezik:

- a) titularraren heriotza gertatzen denean, bere alargun edo ondokoen alde.
- b) Alargunak edo legezko ondokoak eta jubilatuak baimenak ekintza bakar eta eskusibo bezala ez baditu esplotatzen eta segidan aipatutako eskatzaileen alde Herri Erakundearen alde aurretiko baimenaz, edozeinetara ere “gidariaren herri-baimena” ezinbestez duenbeste ondoko baten taxi-eskubidea izanez.:
- 1.- Lanean erabateko lan eskusiboaz zerbitzua eskaintzen duten “A” motako baimen titularren ordaindutako gidariak, baimenak sortzen dituen Herri-Erakundeak luzatutako gidariaren baimena baduela eta indarrean duela kreditatuz eta baita kontzeptu horretan Gizarte Segurantzaren izena eman duela eta kotizatzen duela ere.
  - 2.- Aurreko puntuan aurrikusitako aldaketa gertatzen ez bada, deialdi librez lortuko duten pertsona neutralak edo juridikoak.
- c) Lizentziaren titularra lan egiteko gai ez denean, gaisotasun, istripu eta inda handiagoko beste kausa batzuk ( hau da, adibidez, gidatzeko agiria erabat kentzen zaionean ) bere espedientearen aurreko atalean dauden eskatzaileen alde dagoena ikusi behar.

Udalak auto-taxien baimen-aldaketa gustiak zerapetuko ditu Ordenantza Fiskalean ezarritako udalak aldaketa-baimena luzatzen duen dagokion tasaz.

Aurreko atalean aurka joanez egien diren aldaketak Herri-Erakundearen kentzea sortuko dute, zentral sindikal, elkarte profesional edo edozein interesatuen eskaerara ofiziozko hasierazko espedientearen alde aurreko tramitazioz.

- d) Baimenaren jabeak 10 urte baino gehiagoko antzintasuna badu, eskuz alda dezake, udal erakundearen alde aurreko baimenarekin, eta ezin izango du beste 10 urtetan beste baimenik atera.



- Ordenantza hau indarrean sartzen denean, baimenari atxekitutako zerbitzuaren prestakuntzari eskusiboki ekin ez dietenak edo beste ekintza batzuetatik datozenak, bere epeetan aldatu beharko dut, bera indarrean sartu eta urtebeteko epe barruan 26. artikuluko b) ataleko eskatzaileen alde. Obligazio hau bete ezin denean, bere ukapena gertatuko da.

## **VIII - ERREGIMEN ZIGORTZAILEA.**

**27.- Artikulua.- VIII kapitulu**an ezarritakoa izango da erabiliko den erregimen zigortzailea: **kontrola, ikuskapena eta zigor erregimena**, ekainaren 29ko 2/2000 Legearena, turismo automobiletan bidaiarien garraio publikoarena, otsailaren 20ko 2/1998 Legearekiko, Euskal Herriko Autonomi Erkidegoko Toki-Administrazioen ahalmen zigortzailearena.

**28.- Artikulua.-** Eusko Jaurlaritzak ezarritako moduluaren zenbaki horretara iritsi arte, zesatu, gelditu, zergapetu edo bere borondatez uko egindako baimenen kontuan.

### **AZKEN KLAUSULA.**

Ordenantza honetan arautu gabeko guztiarentzako, ekainaren 29ko 2/2000 Legea, Garraio Publikoarenean ezarritakoa erabiliko da.

